



Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila, EAEko kultura-bizitzan parte hartzeko asmoz, **Ertzaintzaren Musika Banda** horretarako interesa duten udalen, ikastetxeen, elkarten eta kultura- eta gizarte-erakundeen esku jartzen du.

Ertzaintzaren Musika Bandaren emanaldiak atal hauen barruan kokatzen dira:

- **PUBLIKOARI ORO HAR ZUZENDUTAKO KONTZERTUAK.** Emanaldiak herriko jaietan, jardunaldi soziokulturaletan. Banda osoak eskaintzen duen ikuskizuna askotarikoa eta erakargarria da.
- **ADINEKOENTZAKO KONTZERTUAK.** Bandak, osorik zein ganbera-taldetan, bere erreperorioaren bidez, modu entretenigarrian eta samurrean, musika hurbiltzen du adinekoengana. Modalitate honen barruan era askotako eta osaera malguko taldeak daude. Ohikoenak hauek dira:
 - Boskote klasikoa
 - Saxofoi-laukotea
 - Klarinete-taldea
 - Metal-boskotea
 - Etab.
- **KONTZERTU PEDAGOGIKOAK.** Modalitate hau interesa duten ikastetxe guztientzat dago zabalik eta horietako bakoitzaren behar zehatzetara molda daiteke.
- **PROTOKOLOZKO EMANALDIAK.**

Ertzaintzaren Musika Bandak parte hartzeko baldintza orokorrak hauek dira:

- Eskabidea, gutxienez, hiru hilabete lehenago bidali behar da eta, halaber, baldintza teknikoak eta azpiegiturazkoak bete behar dira.
- Eguna, ordua, tokia eta abar. Bandako arduradunarekin adostuko dira.
- Proposatutako tokia ikustatuko da baldintza teknikoak betetzen diren egiaztatzeko.

Ertzaintzaren Banda osoaren parte-hartzea eskatuz gero, eskatzaileak bandako kideen joan-etorrien eta kontzertua egiteko beharrezko instrumentu eta baliabide materialen garraioaren kostuak **bere gain hartu beharko ditu**. **Adinekoentzako kontzertuen kasuan, ganberako taldeen** parte-hartzea



eskatuz gero, interpretatzaileen joan-etorrien eta instrumentuen garraioaren gastuak Segurtasun Sailaren kontura izango dira.

Eskabideak helbide honetara bidali beharko dira:

**JEFATURA TERRITORIAL DE LA ERTZAINZA DE ÁLAVA
ARABAKO ERTZAINZAREN LURRALDEKO BURUZAGITZA**

Forondako Atea, 41 – P.K.: 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 06 42 05 – Faxe: 945 06 42 06 / 07

stadm_ara@ertzaintza.eus